



0. DESKRIBAPENA

Gure taldeak proiektu hau osatzea erabaki du, ideia on bat iruditu zaigulako gure gizarteari zerbitzu hobe bat emateko. Honakoa da CMBeat pultseraren xedea:

Pultsera honi esker, gaur egun adinduek dituzten arazo osasunen ondorioz sortu daitezkeen gaitzak murriztu daitezke, izan ere, gure enpresaren bereizgarri nagusia laguntzaren azkartasuna da. Gure pultserak bezeroei segurtasuna ematen die.

CMBeat gizarteari oinarrizko laguntza eskaintzen dion pultsera elektronikoa bat da.

Pultserak hainbat erabilera izan ditzake:

- Pultsera honek taupadak neurtzen ditu eta hauek ohiko neurritik kanpo daudenean edo bezero baten tentsioa igotzen denean, bibratu egiten du bihotz-taupada neurgailuaren abisuari esker. Bibratzen duen bitartean, eskumuturrekoaren pantailan laguntza behar duzun ala ez galdera agertuko da, eta laguntza ez baduzu behar, albo batean dagoen botoi beltz bat sakatzen duzu eta laguntza ezeztatu egiten da.
- Pultsera honek geolokalizatzaile bat darama integratuta.
- Laguntza beharrezkoa bada, 30 segundo bibratu dezan uzten diozu eta botoi beltza sakatu ezean, laguntza bidaliko zaizu zure kokagunera.
- Zure taupadak igotzen ez badira eta laguntza behar baduzu, beste aldean dagoen botoi gorria 3 aldiz sakatu behar duzu eta laguntza berehala iritsiko litzaizuke. Hiru aldiz nahi gabe emateko arriskua dagoenez, gure pultserak laguntza deia ezeztatzeko aukera du botoi beltza ("EZ" botoia) segundo batzuetan sakatuz.

Horrez gain, pultserak dituen diseinu aukerak eta beharrezkoak dituen datuak sartzeko, mugikorrerako dohainik lor daitezkeen aplikazio bat sortuko dugu. Aplikazio honek ere CMBeat izena izango luke eta

Android eta IOS sistema eragileentzako. Aplikazioan sartu beharrezko datuak hauek izango litzateke: Izen-abizenak, adina, jaiotze data, herrialdea, osasun arazoak azaldu beharko ziren eta 2 kontaktu garrantzitsuen telefonoak.

Gure pultseraren diseinua hurrengo argazkian agertzen den marrazkia bezalakoa da:

